



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko uzailaren 28a, 19. zenbakia. Doan banatzen da.



UDA GIROAN

ZIZURKILEN GOIAN ETA ELBARRENAN

JATETXEA PASUS - ENEA



- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Berezitasuna TXULETA

*Jai egunak umore
onean pasa itzazue*

Telf. 69 26 76 ZIZURKIL

GARAJE

EXIN

AUTO KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • GURPILAK

ELBARRENA AUZOA - 15.POL.
☎ - FAX 69 26 84 ZIZURKIL

ZURE PEUGEOT AGENTEA

AIZMENDIZABAL

Nazario García

ELBARRENA AUZOA
15. INDUSTRI POLIGONOA
TELF. 69 23 78 ZIZURKIL



ELEKTRIZITATEA ZIZURKIL, S. L.

Instalazioak - Konponketak - Bobinaiak

Material elektrikoa eta
elektrogailuen salmenta

Elbarrena auzoa 20150 ZIZURKIL Telf. 692034

ONDO PASA

zure gida karneta...



ZUBI AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

IRIARTE JATETXEA

BAR - JATETXEA



*Jaiak oso ondo
igazotzea opa
dizuegu*

P. M. OTANO PLAZA • 20159 ZIZURKIL • TEL. 69 37 50

ELIZONDO

"PANTXIKANE"

JATETXEA

Ondo pasa jai egunak

Telf. 69 18 93 — ZIZURKIL

J A I A K



HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. - Faxa 69 37 34

ZIZURKIL

LARTIN JATETXEA



Telf. 69 13 68
20159 ZIZURKIL



NEKAZALTURISMOA
Gela bilkoitzak

Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**
ZE BERRI?
Kike Segurola margolari asteasuarra.
2. **INKESTA.**
Eta zure ametsetako bidaia zein da?
3. **LARRAUL/LARRAUL.**
Jaietarako prest.
- 4-5. **ANDOAIN.**
Lehenengo Udal batzarraldia.
Intsumisoak kateaturik.
6. **ASTEASU.**
Argindar horniketa berria Bulanon.
7. **BILLABONA-AMASA.**
Udal batzordeen eraketa.
8. **ZIZURKIL.**
Irailean ospatuko dira Elbarrenako jaiak.
- 9-10. **ERREPORTAIA.**
Abuztuaren ateetan eguzkipean.
11. **BASERRIA.**
Andoaingo nekazarien kooperatiba.
- 12-13. **KIROLA.**
Aquadim: gimnasia egiteko beste era bat.
Neskak futboleak.
14. **LEHIAKETA.SUKALDE TXOKOAN.**
15. **HEMEROTEKA.**
16. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur
Bazkuna **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona,
Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe
Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika,
Ainhoa Oiarzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:**
Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Mailu
Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.
Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-
202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.



M. LARRAMENDI




Aldizkari honek Eusko
Jardularitzako Kultura sailaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru
Aldundiko Kultura
Departamentuaren laguntza jaso du.

Ze berri?

Kike Segurola MARGOLARIA



ASTEASUARRA; 21 URTE; DISEINU
GRAFIKOA ARI DA IKASTEN BAR-
TZELONAN

- **Noiz basi zinen margotzen?**

- Txikitatik izan dut margotzeko grina.

13 urterekin hartu nuen lehenengo aldiz
pintzela, eta 17rekin basi nintzen erakus-
ketak egiten. Bartzelonan ikasten basi nin-
tzenetik ez daukat margotzeko horrenbes-
teko denborarik; ikasketetan zeharo mur-

gilduta nago. Asteasura itzultzen naizenean, uda eta Aste Santua
aprobetxatzen ditut margotzeko.

- **Nolakoa da zure pintura?**

- Estiloari dagokionez, orain ez dut basieran bezala margo-
tzen. Abstraktoa egiten dut orain, gehienbat. Koadro handiak eta
nahastutako kolore indartsuak erabiltzen ditut.

- **Zein margolari dituzu gogoko?**

- Donostiako Moraza batetik; antzeko estiloa erabili obi dugu.
Eta ospetsuen artean Tapies asko gustatzen zait.

- **Margolaritzan publikotasunera iristea zaila al da?**

- Bai, oso zaila. Taberna batean erakusketa bat egiteko urtebe-
te zain egon behar izaten da batzuetan. Lana aurkeztea zaila da.
Pazientzia behar da.

- **Zergatik diseinu grafikoa? Eta zergatik Bartzelonan?**

- Erabakitze orduan ez neukan oso garbi nire bizitza osoa
margolaritzari eskaini nahi nion, eta diseinua ere gogoko nuen-
ez, mundu hori ezagutu nahi izan nuen, margotzeari utzi gabez.
Bartzelonara joan banintzen kanpora joan nahi nuelako izan
zen. Hala ere, gustora itzultzen naiz berriro. Gainera, zenbait
gauzetan aukera gehiago dago hiri handi batean: erakusketak,
dendak..., eta baita barremanak ere.

- **Zer botatzen da faltan?**

- Asteasuko lasaitasuna. Ham jende gutzia estreatututa bizi da.
Eta barremanak izatea ere hemen baino zailagoa da.

- **Ikasi al duzu katalana?**

- Dena ulertzen dut, baina ez dut asko hitz egiten. Batzuetan
barre egiten didate hitz egiten dudanean, orduan nik enskaraz
hitz egiten diet.

- **Udalekuetan eman duzu uztaila**


- Bai, oso ongi pasatu dut, gainera. Haurrak oso gogoko ditut.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere-
gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Eta zure ametsetako bidaia zein da?

Uda, eta abuztua bereziki, ez dute bidaiatzeko garairik egokienak zertan izan behar. Baina, normalean, gehientsuenok orduntxe egiten dugu herritik ateralditxo bat edo beste. Batzuek herritik sartu-atera batzuk eginez konformatzen dira, edota bertan geratuz. Beste batzuek

berriz, bidaia luzeak egitea izaten dute gogoko. Errealitate edo fantasia, guztiok egin izan dugu behin edo behin bidaia zoragarriren batekin amets, zuk zeuk ere izango zenuen, edo baduzu oraindik ere, amets berbera. Zein da zure ametsetako bidaia?



Mikel Campos, ikaslea. Andoain.

Zer erantzun ez dakidala harrapatu nauzu. Baina Hawaii bururatzen zait izan daitekeela bisitatzeko toki polita. Bidaiak egin izan ditut, ingelesa ikastera joan naizenean, batez ere: Inglaterrara eta Estatu Batuetara.



Nagore Ezeiza, ikaslea. Aduna

Portaventura da nire ametsa, eta gainera, aurten joango naiz. Bertan umeentzat parke handi bat dago gauza ikusgarriekin, *aquapark* eta horrelakoak. Izugarrizkoa omen da.



Iñaki Zalakain, musika irakaslea. Billabona

India, Karibea... Ondo leudeke baina Pirinioak ere ez daude gaizki. Lasai egoteko leku bat da nire ametsa. Eguzkia eta ezer egin gabe egoteko lekurat bat.



Joxe Amezi eta Maria Aranburu, jubilatutak. Andoain.

Gu zahartuta gaude ia bidaiak egiteko. Gaztetan ibili izan gara hortik zehar. Espainian Andaluzian, Extremaduran, Galizian eta Palman izan gara. Erroma ere bisitatu dugu.



Fernando Rodrigo, langilea. Asteasu

Grezia aldera joatea gustatuko litzaidake. Parajeak, animaliak eta naturarekin zerikusia duten gauzak ikustea gustatzen zait, eta horretarako Grezia aproposa dela esan didate.



M^o Dolores Artola, umezaina. Zizurkil

Argentina. Nire birraitona bertara joan zen eta orain dela gutxi bertan senitartekoak genituela jakin genuen. Ez dut oraingoz joateko aukerarik baina noizbait joango naiz. Hori bai, ez naiz hegazkinez joango; itsasontziz izan beharko du.



HERRI OSTATUA

Taberna - Jatetxea

San Esteban edo San Bartolometako lekunik egokiena


Herriko Plaza • Tel. 69 18 55 • 20159 LARRAUL

Hiru Anaiak

GOZOTEGIA

PASTELERIA

Zumea, 18 ANDOAIN



Adunako eta Larraulgo jaiak

Andra Mari jaiak

Udan herrietako jaiak nonahi pil-pilean egon ohi dira, eta Adunak ere jaiak prest ditu herritar guztientzat, eta nola ez, bertara gerturatu nahi duen ororentzat. Abuztuaren hamalauetan emango zaie hasiera Andra Mari jaiei. Hala ere, egun bat lehenago, edadetuek izango dute protagonismoa eta berezko jaiak. Bazkaria izango dute herriko tabernan eguerdiko ordubietan.

Abuztuaren 14ean kalejiran hasiko dituzte jaiak adunarek. Ondoren afari herrikoia izango da, eta segidan Gozategi anaien saio berezia. Hurrengo egunean, Andra Mari egunean, besteak beste, Axeri dantza, herriko dantzari gazteak, herri kirolak, bertsolariak -Peñagarikano, Jon Sarasua, Murua eta Sorozabal-, eta dantzaldia egongo dira.

Abuztuaren 16ean oilasko jokoak, umeentzako jolasak eta trikitixa. Azken egunean, abuztuaren 20ean, sagardo dastaketa, txekor jana, toka sariketa eta trikitixa jaiak ongi bukatzeko.



Inguruko jende ugari biltzen da

San Estebanak

eta

San Bartolomeak

Abuztuaren 3an emango zaie hasiera Larraulen San Bartolome jaiei. Zaharrenek hamaiketakoak izango dute, umeek jolasak eta trikitixa, eta gauean guztientzat trikitixa goizaldera arte Jokin eta Azkonabeitiarekin. Hurrengo egunean, ostirala, herri afaria eta gaua girotuz Maixa eta Itziar bikote ezaguna erromerian.

Larunbatean, bertso jaialdia izango da: partehartzaiak Sebastian Lizaso, Peñagarikano, Jon Sarasua eta Jon Maia izango dira. Ondoren, Trabuko taldea izango da, eta gau osoan dantzan botatakoak berreskuratzeko goizaldean txokolatada.

Igandean meza nagusia, gazteen arteko pilota partiduak, herriko gazteen trikitixa, mus txapelketa, herri kirolak ezkondu eta ezkongabeen artean, herriko trikitilari gazteak, eta gauean Akelarre taldea jaiak giro apartatz bukatzeko.

Hala ere, eta oraindik aurreko jaien ajea pasa gabe dagoenean, San Bartolomeak izango dira Larraulen. Egun bat besterik ez bada ere, jaiak beti jai, eta kasu horretan aprobeztatzeko modukoak. Ahari jokoak, herriko gazteen trikitixa, Euskadiko Trikitilari Txapelketaren kanporaketa, eta bukatzeko, Kristina, Amaia eta bere taldearen dantzaldia. Ondo pasa.

LARRAULKO UDALAK

San Bartolome

eta

San Esteban

Jai zoriontsuak opa dizkizue



*ogi berezi eta artesauak
...
etxerainoko zerbitzua*

OGI ZURI

OKINDEGIA, S.L.
Lizarr-etxea, 32 / Elizmendi auzoa.
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

OGI · GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

Herriz herri

Andoain

Lehenengo Udal batzarraldian akordioak eta desakordioak

HB aretotik irten zen bere ezadostasuna azaldu ondoren

Hainbat erabaki onartu ziren lehenengo Udal batzan: EAJ-PNVko zerrendakide zen Eugenio Ariztimuñoren uko egite proposamena, Gobernu Batzordearen eraketa, batzordeen osaketa eta funtzionamendua, Udal erreglamendu organikoa, alkatearen soldata eta alderdi politiko eta zinegotzietako dagozkien diru-kopuruak, eta J.M. aldaiaeren askatasunaren aldeko mozioa. HBk Udal gobernua osatu duen talde hirukoitzaren jarrerari buruzko iritzia eman ondoren, mahaitik altxatu eta aretotik irten zen.



Lehenengo Udal batza

Eugenio Ariztimuñoren kargu uzte proposamena onartu zen lehenengo eta behin, eta bere ordezkoko Pili Berasain izendatu zuten hau ere independente gisa. Bestalde, J.A. Perez Gabarain alkateak, Garbiñe Egibarrek, J.M. Ormazabalek eta Eloi Artolazabalek osatuko dute Gobernu Batzordea. Batzordeburuak ere izendatu zituzten: Pertsonala: Juan Fernandez Narciso (PSE-EE); Zerbitzuak: Maxen Zinkunegi (EAJ-PNV); Hirigintza: J.A. Perez Gabarain; Ongizatea: Elena Arribillaga (EA); Hezkuntza eta Kultura: Garbiñe Egibar (EAJ-PNV); Euskara: Gabino Aguiló (EA); Hazienda eta Ekonomia: Mikel Arregi (EAJ-PNV); Enplegua eta Gaztedia batzordea: Jose Luis Vela (PSE-EE). Batzordeak delegatuak zango dira, hau da bertako buruek alkatearen funtzio batzuk bete ahal zango dituzte.

Udal erreglamenduari dagokionez, beste batzuen artean, Udalean

mozioen aurkezpenari buruzko aldaketa bat izan zen: orain arte taldeek edozein alderdi politikoren babespean aurkez ziezaioketen Udalbatzari mozio bat, hemendik aurrera bozeramaileen batzordean aurkeztu beharko da, eta batzordeak onartuz gero bakarrik eztabaidatuko da Udal batzan. Aurrerantzean ere alderdi politikoren baten babesa beharko dute.

HBren ezadostasuna

HB aretotik irten aurretik hainbat gairi buruzko iritzia agertu zuen egoera politiko orokorrari buruz, batetik, eta talde hirukoitzaren jarrerari buruz, bestetik. Udal gobernua osatu dutenen itxikeria salatu zuen: "Nola uler daiteke bigarren indar politikoa izan denari Gobernu Batzordeko ateak ixtea? Zuen artean pastela banatu eta ezker abertzalea txokora bidali duzue, zigortuta". Halaber, mozioen aurkezpenari buruz

hartutako erabakia gaitzetsi zuten: "Hemendik aurrera mozioak alderdi politikoen filtrotik pasa beharko dute. Herri ekimenari ateak ixten ari zarete horrela".

HBk bazituen eztabaidatu ez ziren hiru mozio: bat, Udal erreglamenduari dagokionez Gobernu Batzordea alderdi politiko guztiei irekia izatea proposatu zuen, batzorde informatiboak erabakiorrak izatea, eta Kultura eta Etxebizitzaren Patronatoak, eta Gaztedia eta Emakumearen batzordeak osatzea. Bi, alderdi politiko eta alkatearen soldatari dagokionez lehenengoak igoyerarik gabe bere horretan uztea, eta bigarrenaren soldata eta dedikazioa erdira jaitea. Eta hiru, HBko zinegotzia den Aritz Arnaizek Udal batzarraldietan parte har dezan zinegotzi guztien oniritzia eskatzen zuen mozioa. "Zinegotzi bahitua" zioen pankarta zabaldu zuten hainbat herritarrek aretoan.



Intsumisoak kateaturik

SAPA enpresaren aurrean kateatu ziren Gipuzkoako zazpi intsumiso



Intsumisoak tarta bat eta natazko bi bonbak skaini zioten enpresari

Lutxi Arregi, Patxi Xabier Rojo, Asier Altolagirre, Luis Artola, Jabier Huizi, Joseba Pikabea eta Edu Lartzanguren intsumiso gipuzkoarrak kateatu ziren SAPA enpresaren aurrean. SAPAn kateatzearen helburua atxiloketak eragitea zen, izan ere epaitu ondoren noiz atxilotu zain zeuden gazteak. Era berean arma industriek duten funtzioa salatu nahi izan zuten. SAPAn kateatu baino lehen Andoaingo udaletxeko kontzejupean prentsaurrea eskaini zuten.

SAPA enpresak urtean zehar kainoi, obusak eta lehergailuak egiten ditu. Bestalde, estatu mailan armagintzan bi bilioi inguru da gastatzen da urtean, gaur egun beste arlo guztietan gastatzen dena batuz baino gehiago.

Enpresaren aurrean kateatu ziren intsumisoek urtebetetzea ospatzeko tarta bat eraman zuten eta baita bi bonba ere. Tartaren bitartez enpresaren berrogeita hamar urteko iharduera zoriondu nahi izan zuten, eta bonben bitartez "bonbak bai, baina jatekoak" adierazi nahi izan zuten.

SAPAn zeudela, ertzainak bertara joan arren, ez zituzten atxilotu. Hala ere, hurrengo egunean Martuteneko kartzelan kateatu ondoren, eta kartzelako agintariekin hitz egin eta gero, espetxeratu zituzten.



BORDA
Jateetxea

A N D O A Í N

Eguzki plakak tunela argiztatzeko

Proiektu aitzindaria eta berritzailea

Otita parkearen ateetan, Andoaindik irtenda, Tren Txikik zeharkatzen zuen lehenengo tunela eguzki plaken bitartez argiztatuko dute. Era horretan inguruak eskaintzen duen balio ekologikoa zaindu eta proiektu aitzindaria jarri nahi da martxan.



Irailerako amaituko dituzte lanak

Irailerako lanak bukatuta egongo dira. "Aldamenean geneukan nahi izanez gero eletra-hariteria", esan digu Ramon Varelak Andoaingo Udaleko Ingurugiro teknika-riak, "baina inguruak daukan balio ekologikoa mantendu nahi izan dugu". Leitzarango harana ezagutzera emateko Udala egiten ari den ekintzen artean proiektu berri honek bere garrantzia badu Udalaren iritziz, "azken finean, Andoaindik Leitzararen sartzeko igaro behar den lehenengo tunela da".

Aipaturiko tunela Leitzarango luzeena da: 280 metro dauzka. Argiak pizteko bidean barrena ibiltzen diren oinezko eta txirindulari ugariak botoi bat sakatu beharko dute tunelaren sarreran, bere kasa itzaliko dena. Argiak ez dira oso indartsuak izango "orain arte batzuetan gertatzen zen bezala, paseoan dabiltzanak euren artean behaztopo egin ez dezaten behar adina argi bakarrik izango da", esan digu Varelak. Mekanismoak badu, bestalde, ezaugarri nabari bat: eguzkirik ez badago ere, nahikoa argitasun egonda, batera batzuen bitartez energia hamarren bat egunetarako gorde egiten da. Horrek urte osoan zehar ziurtatuko omen du argia, bolada luzz sekulako elur jasak egiten ez baditu, behintzat.



Herriz herri

Asteasu

Bulano baserrietako argindar horniketa berrituko dute

Mikel Arteaga: "Hamar urtez egon gara lan horien zain"

Hilabete honen amaierarako erabakiko da elektrifikazio lanen hirugarren egitasmoa.

Aurreko biak bertan behera gelditu ziren eta azken hau aurrera aterako delakoan dago

Bulano Goia baserriko Mikel Arteaga. Berak esan digunez, egitasmo horren bidez baserrien argindar horniketa hobetuko da eta horrela, egungo tresneria modernoak behar bezala funtzionatuko du.

Hiru baserri eta txalet batek osatzen dute Bulano izenez ezagutzen diren etxebizitzak. Aia eta Asteasu herrien artean daude eta pare bat kilometrotara dute argindarraren transformagailua, ondorioz, baserrietara iristen den argindarra oso ahula da. "Hiru baserrietako bizilagunak baserriaren ustiapenetik bizi gara eta egungo tresneriak argindar handiagoa behar du", esan digu Mikelek baserriarren beharrak azalduz. Arazorik larriena esnea hozteko makinak sortzen dituela gaineratu digu, argindarra joanez gero, esnea galdu egiten da-eta. "Galera handiak ekarri dizkigu argindarra une batetik bestera galdu izanak; zenbait makina hondatu eta gaueko loa ere kendu digu makinak nahikoa indar zuten begiratzeko egoteak", gaineratu digu Mikelek telebistak eta bonbiletan behar duten argindarraren ga-bezia ere seinalatuz.

Iberdrolak ahazturiko baserriak

Iberdrolari askotan deitu diete hondaketak konpontzeko esanez eta behar bezalako argindar horniketa eskatuz. Baina ez diete jaramon handiegirik egin urte hauetan zehar eta azkenik, Udalera jo dute Bulanoko bizilagunek. Azkenean akordio batera iritsi dira Diputazioa, Udala eta bizilagunak; argindar horniketa berriaren gastuaren %85a Diputazioak nekazariari eskaintzen dizkien laguntzen

bidez- eta Iberdrolak ordainduko dute eta gainerako %15a bizilagunek eta Udalak, "nahiz eta azken honek ez duen derrigorrez zertan ordaindu behar", azpimarratu digu Mikelek. Orain egitasmoa aurrera eramango duen enpresa eta behin-betiko egitasmoa erabakitzea falta da, lortu beharreko baimenak eta paperak eskutan baitituzte. "Ea urtea bukatu baino lehen argirik ikusten dugun!" esanaz agurtu digu Mikelek.

Sendotza eta lehen jaunartze sakramentuak egin berri dituzte asteasuarrek



Herriko hamaika haurrek duela gutxi hartu zuten beren lehenengo jaunartzea San Pedro elizan. Argazkiko zortzi gazte hauek ere egin berria dute sendotza sakramentua toki berean.

Aurki egingo dituzte lanak

**PATXINE
JATETKEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



HOL - ATZ

VACSOL - WR' TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA



Gobernu Batzordea eta gainontzeko batzordeen kideen osaketa

GOBERNU BATZORDEKO KIDEAK:

Joxin Mujika Alkatea

Eduardo Laborde

Xabier Zabala

Jose Luis Arnaez

Jesus Mari Urreta

Lehenengo alkateordea: *Eduardo Laborde*

BATZORDE INFORMATIBOETAKO LEHENDAKARIAK:

Hazienda, mendiak eta zerbitzuak: *Joxin Mujika*

Hirigintza eta obrak: *Eduardo Laborde*

Enplegua eta Gizarte Ongizatea: *Jose Luis Arnaez*

Hezkuntza, Euskara eta Ingurugiroa: *Xabier Zabala*

Kultura eta Kirolak: *Jesus Mari Urreta*



Lehenengo Uda batzarraldia

Haurtzaindegia handituko dute

Haurtzaindegiak berrogei haur inguru izango ditu datorren ikasturtetik aurrera. Orain dagoen bezala nahikoa txiki geratzen dela eta handitzea erabaki du Udalak. Haurtzaindegiak duen terraza alde batetik, handitu egingo dute, eta bestetik, zati bat itxi egingo dute leku gehiago eduki dezaten bertara doazen haurrek. Hogeita zazpi metro karratu gehiago izango ditu haurtzaindegiak datorren irailetik aurrera. Lanak abuztuan egingo dituzte.

Eskuzko pilota modalitate berria Laxo-joko erakusketa

Berria esatean inguru hauetan berria dela esan nahi dugu, izan ere laxo jokoa izatez, oso zaharra baita. Errebotearen antza duela esan dezakegu. Hala ere zailagoa da, eskularrua jarrita jokatzeko baita. Bestalde, pilota ateratzeko modua ere ezberdina da. Laxoa gure artean ezaguna ez bada ere, errebotea baino lehenagokoa da eta bere aitzindaria da, gainera. Baztango herrietan ezaguna den pilotan jokatzeko modu hau pilota zaletuentzat ikuskizun paregabea izan ohi da; bere zailtasunak eta berezitasunak zaletuak bereziki erakartzen ditu. Billabonan, lehenengo aldiz jokatu da laxo-jokoa, eta erakusketa baten bitartez bi taldek emango digute joko ikusgarri honen berri. Billabonako jaien barne izango dugu ikusteko aukera, ekainaren 30ean eguerdiko 12etan.

MIRARI


ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

Albañileria
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza Auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)



ZUBI
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



ZENTROA

☎ 69 04 47
ZIZURKIL

JATETXEA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:
ARRAI ERREAK
EUSKAL SUKALDARITZA HERRIKOIA


Aldez aurretik deituta
JANARI MEXIKANOIA

EGUNEROKO BAZKARIAK
Ostegun arratsaldean ixita, bazkariak eman ostean.



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefona 30 01 69 ANDOAIN



Herriz herri

Irailean ospatuko dira Elbarrenako jaiak

Jai batzordeak eta blusek antolatzen dituzte festak

Irailaren seian hasi eta hilaren hamarra bitartean ospatuko dira Arantzazuko

Amaren omenezko jaiak.

Antolatutako ekitaldiek aukera gutxi utziko dute lasaitasunerako. "Unaezinak" lagunarteak botako du aurtengo jaiet hasiera emateko txupinazoa, eta hurrengo lau egunetan ere koadrilak izango dira festen protagonista.



Urteak ez dira alferrik pasatzen

Jai batzordea gogor dabil festetarako ekitaldiak antolatzen, eta beti bezala, azken uneko gauzak jotzen. Batzorde horretan koadrila edota blusa ezberdinetako zizurkildarrek parte hartzen dute, eta azken urte hauetan gazteek hartu dute antolaketa ardura. Hamazazpi eta hogeita urte bitarteko gazteak dira egungo blusen partaideak nahiz eta Ordago edota Beti Argi blusetako "zaharrek" festarako gogorik ez duten galdu. Lau blusa besterik ez ziren koadrilak antolatzen hasi ziren urtean baina egun, hogeita blusa inguru daudela esan digute jai batzordekoek.

Asteazkenean, txupinazoa eta gero afari herrikoia dago eta ostirailean izango dute blusek egunik aztoratuena. Zubiaurretan bazkaldu eta gero koadrilen arteko *pentaton* saioan euren trebetasunak erakutsi beharko dituzte blusetako partaideek. Gau partean berriz, *play-back* a egingo dute. Berritasun bat izango da hilaren bederatzian, larunbata: Jai batzordekoek antolatu duten sagardo lehiaketa. Arratsaldeko asto lasterketa ordea, ez da ekitaldi berria.

Hogeita hamalagarren asto lasterketa

Hasiera batean nork irabazi izaten zen asto lasterketaren gakoa baina egun, koadrilen mozorroek eta burutzen dituzten parodiek dute garrantzia. "Jai giroa bultzatzen duten koadrilak saritzen dituzte, festa giroa eragiten dutenak, alegia", esan digute jai batzordekoek. Aipatzekoa da jende ugari biltzen duela ekitaldiak,


zizurkildarrak zein ingurutako herritakoak. Igandean bukatuko dira jaiak motokros saioarekin eta Iparraldeko herri kirolariek eskainiko duten ekitaldiarekin. Ezin ahaztu gauean egingo den ur-pistolen gerra. "Barrutik" eta kanpotik bustitzeko gaua izango da.

Jaien aurreko asteburuan Aitor Goikotxea gogoratzeko arratsaldean *cans* lasterketa egingo dute eta ondoren jaialdi handi bat.

Pedro Galarraga preso eta Tomas Arrastoa epaitu dituzte

Hilaren hemezortzian epaitu zituzten Madrilgo Auzitegi Nazionalan bi zizurkildarrak Billabonako J. Angel Apezetxea presoarekin batera. 1993ko otsailean atxilotu zituzten ETArekin kolaborazioa leporatuz. Handik lau hilabetera askatu zuten Tomas Arrastoa, eta orain epaitu dute besteekin batera. Annistiaren Aldeko Batzordeak gogor salatu du epaiketa: "Irizpide politikoak nagusitu dira inongo ziurtasun juridikorik gabe", esanez eta Euskal Herriaren eskubide demokratikoak defendatzeagatik espetxeratu eta epaitu zituztela gaineratuz.

Orain epailearen erabakia zein izango den itxaron beharko dute.



Abuztuaren ateetan eguzkipean

Uztailean haurrak udalekuetan

Goizetan oraindik ere ikusten da jendea atzera eta aurrera enkarguak egiten edo lanerako bidea hartuz. Arratsaldetan ordea, jendea non sartu ote den galdezka igaro dugu hilabetea. Zenbait dendarik ere esan digu oporrak aurreratu eta uztailean hartzekotan egon direla, horren jende gutxi ikusita. Arratsalde inguruan, berorik handienak igaro direnean, hasten dira ta-

berna batzuk animatzen ilundu arte. Jakina da abuztuan gure herriak erdi hutsik geratzen direla. Uztailean ere asko izaten dira aspaldi utzitako jaioterrira itzultzen direnak. Baina gaine-rakoan, zer egin du jendeak uztailean? Non sartu da? Horixe bera jakin nahian bisitatu ditugu hainbat toki, eta jakin dugu uda parteko hila-bete honetan herritar askok zer egiten duten.



Eguzkiak gogoz jotzen duenean trengeltokia ikustea besterik ezdago askok larrua berotu edo freskatzera Donostia aldera joaten direla ikusteko: gazte asko Ondarretara, Kontxara betikoak, eta Zurriolako hondartza berria ezagutzera asko. Herrian bertan igerilekurik ez dagoela eta, Hernanira edo Tolosara joaten dira hondarra gogoko ez dutenak edo igeriketa saioen bat egin nahi dutenak. Baina Andoainen bada atsedeen hartu eta ure-

tan murgiltzeko beste aukera bat: Olazarreko atsedeenlekua edo "Etxarri".

Olazarreko atsedeenlekua

Sasoia daukatenak bizikleta hartuta joaten dira; kotxez ahal dutenak, eta oinez izerdia dariela beste erremediorik ez dutenak. Arratsaldean biltzen da "Etxarri" batez ere jendea: haur txikiak dituzten emakumezkoak eta neska-mutil koadrila franko. Otar-tekoak hartu, mahai batean gerizpean egokitu eta umeek uretan minik har ez dezaten errekarri begirada kendu gabe igarotzen dute emaku-

me askok arratsaldea. Beltz-beltzak egon arren, eguzkitan kiskaltzen egotea gogoko dutenak ere aurkitu ditugu: krema alde guztitan ongi igurtzi eta hortxe egoten dira, bakarrik normalean, hamakan lasai-lasai eserita gorputzak galtzen duen likidua tarteka ur botilari hurrupadak eman bez berreskuratuz. Uraz gozatzea gogoko duenik ere beti izaten da, eta Leitzarango urak Olazar parean garden-gardenak ez badira ere, bainu bat hartu eta uretan itzulipurdi batzuk egiteko modurik badago. Joan



50 lagun inguruk hartu dute parte Zizurkilgo udalekuan

deneko egunetan ordea, Olazarreko tabernan aurkitu dugu ez-ohiko animazioa. Izan ere, han edo hemen, Tourra eta Indurainen eta Alex Zulleren arteko lehia inondik inora galduko ez luketenak nonahi izaten dira.

Etxetik gertu daukate andoaindarrek bainu bat hartzeko aukera

Olazarretik aurrera ere jendeak badaki txoko ezkutuagoak bilatzen, herrikoak nahiz kanpokoak. Leitzarango erreka bazterretan kanpin-denda bat baino gehiago dago jadanik. Herrian aspertuta bizikletak hartuta astea igarotzera bertaratzen diren koadrilak aurkitu ditugu Bertxingo parketik errekan gora.

Udalekuak: haurren jolasleku

Udalekuak izan ohi dira txikienen denbora pasarik atseginetako bat, hala nola eskola joan gabe etxean zer egin ez dakitela geratzen diren haurren gurasoen lasaitasunerako aukera ezin hobea. Herri guztietan antolatzen dira udalekuak. Hamabost egunez etxetik kanpo joaten dira batzuk; Araba, Nafarroa edo Errioxa aldera asko. Beste batzuek herriz, ez dute gurasoengandik bereizteko gogorik izaten, ezta gurasok beren

haurrengandik ere. Horregatik udaleku irekietan hartu ohi dute parte.

Udalekuak gaztetxoaren bigarren etxea

Goizetik eguerdira arte ekintza ezberdinak eta lagunartean egoteko aukera paregabea izan ohi da. Zizurkilan izan gara Pedro Mari Otaño ikastetxean astean behin bertako tailerrean neska-mutil tropa batek eskulanak nola egiten dituen ikusten. Askok beroa jasan ezin dutela, gerritik gora biluzik hortxe egon dira eskuez lan egin eta imajinazioa lantzen. Bien bitartean beste batzuk Hernaniko igerilekuetara joan izan dira. Olinpiadak ere antolatu izan

dituzte. Eta batez ere, gozamenik handiena egun-pasa Etxarrin eta Garmarran eman dituzten egunetan hartu dute. Aduna, Larrul eta Asteasun antzera egiten dute Muskilek antolatutako udalekuan.

Udalekuak ordea, uztailean amaituko dira. Horrelako herri txikietan gutxi izaten dira oporrak hartu eta kanpora joaten direnak. Horregatik claude bertako neska-mutilak udalekuak bukatzen ari diren penatan, abuztuaren horrenbesteko aukerarik izango ez dutela susmatuz. Dena den, oporraldiak ere izan ohi ditu herri txikietan beste pozgarri batzuk: egun batzuk familia bisitatzera joan eta urte osoan zehar ikusi gabeko lehengusuak eta lagunak bildu ohi dira askotan herri txikietan, urte osoko monotonía eta lagunartea zertxobait aldatuz.

Udalekuak bukatzeko penatan

Abuztuaren atzetan gaude dagoeneko. Baten batzuek lanean jarraituko duten arren, gehientsuenontzat atsedean garaia izan ohi da abuztua. AIURRIK berak opor egun batzuk hartuko ditu iraila bitartean. Itzultakoan gure irakurleak zenbait atal ezberdin eta berrikuntza batzuk antzemango ditu hamaboskarian. Baina hori oporrak igaro, eta irailean ikusi ahal izango duzue...



Hondartzak bete-beteta

Andoain

Nekazarien kooperatiba

Ehun urte pasatxo izango ditu

Kaletxikin dagoen nekazarien kooperatibak aldaketa ugari ezagutu ditu sortu zenetik: lokala bera aldatu da, banaketa beste era batera egiten da, eta dendan saltzen diren produktuak ere ezberdinak dira. Ehun urteko historia izan arren, oraindik ere zerbitzu garrantzitsua eskaintzen die, hala ere, herriko baserritarrei. Ehun bazkide inguru ditu gaur egun eta Andoainen baserritarren bilgune bakarra dela esan daiteke.



Azkenengo urteetan salmentak gora egin du

“Cooperativa católica del campo” deitzen da berez, nahiz eta herritarrek “kooperatiba” edo “sindikatu” deitu. Garai batean San Roke izenaz ere ezagutzen omen zuten. Ehun urte pasatxo dituela esan digu bertako lehen-dakaria den Prantxixko Ansak, eta ziur aski, Elizaren ekimenez baserritarren interesak defendatzeko eta euren egitekoa errazteko sortuko zuten. Ehun bazkide inguru dauzka gaur egun; gehientsuenek familiaren tradizioari jarraitu diote, eta kooperatiban jarraitzen dute. Dena den, adierazi digutenez, baserrien gainbeheraz geroztik bazkide berri gutxi daude.

Baserriko produktuen salmenta da kooperatibaren egitekorik garrantzitsua. Pentsuak, ongarririk, haziak, burdindegiko tresneria eta baserriko botikak aurki daitezke, besteak beste, dendan. Baserrien bilakaerarekin batera, salmentak ere aldatu egin dira,

ordea: oraindik ere pentsua da gehien saltzen dena, nahiz eta azkenengo urteetan asko jaitsi den; aitzitik, baratza edota zakur batzuk dauzkanak eros ditzakeen produktuen salmentak gora egin du, botikak batez ere, goizetan jendeari zerbitzatzen egoten den Pili Zeberioaren esanetan. Denda, gainera, ez dago bazkideei soil-soilik mugatuta. Dendara bertara joan ezean, hama-bostean behin egiten dutebanaketa INECO etxearen bitartez.

Hainbat zerbitzu

Garai batean kooperatibak bestelako zerbitzuak ere eskaintzen zizkien baserritarrei: Nafarroatik ekarritako ardoa saltzen zen; baserriko behiak ernaltzeko eramaten zen hazitarako zezena ere izan ohi zuten; eta batez ere, orain dela berrogeita bost urte inguru desagertu zen errota asko erabiltzen zuten bertako nahiz Urrietako baserritarrek. Nafarroatik ekartzen zen alea

bertan ehoten zen pentsurako, eta taloak egiteko erabiltzen zen artirina ere bertan egiten zen.

Banaketa egiteko modua ere asko aldatu da: garai batean idi pareak tira egindako gurdia erabiltzen zen; gaur egungo kamioiak ia baserri gehientsuenetaraino iristen dira. Kontuan hartzekoa da, bestalde, garai batean orain baino askoz ere toki hobean zegoela kooperatiba kokatuta: hain zuzen ere, Tren Txikiko eta Renfeko geltokien ondoan, horrek asko errazten zuen Nafarroatik etortzen zen garraioa.

Kooperatibaren etorkizunaz galde-tu diogu Prantxixko Ansari, eta bere ustez beharrezkoa da kooperatibak jarraitzea, “gaur egun baserritarren bilgune bakarra delako, batez ere”, esan digu. Aipatzekoa da, gainera, orain dela urte batzuk bilgune horri esker baserriak su hartzen dutenerako baserritarren elkarteak sortu zutela, gaur egun oraindik ere irauten duena. Dena den, eta erabakita ez badago ere, kooperatiba beste ekimen batzuetarako oinarri izan daitekeela pentsatzen dute batzuek: baserriko guztien zerbitzurako tresneria berria erosteko eta talde lana antolatzeko, esaterako.

Hamarren bat baserri baino ez dira gaur egun herriko baserriaren ustiapenari esker bizi, eta etorkizunean ustiapenak gora ez duela egingo pentsatzen dute gehienek: baserria berritu, larrea garbitzeko buru batzuk hazi, eta etorkizunean familiaren ekonomian baserriko lana osagarri baino ez omen da izango.

MilikoSt

**LIBURDENDA
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

Kirola

Andoain

Aquajim: gimnasia egiteko beste era bat

Izaskun Jauregi: "Uraz gozatu egiten da aquajim eginez"

Maiatza aldean hasi eta abuztua bitartean inoiz baino mugimendu handiagoa izan ohi da kiroldegian; uda garaian, nonbait, jendeak gorputza zaintzeko eta era berean luzitzeko gogoia izaten du. Kiroldegian ere eskaintza berezia izan ohi da garai honetan. "Uda 95" egitarauak ez-ohiko ikastaroak eskaintzen ditu: parapentea, *fitnes*, zaldiketa, *aerobic*, eta besteak beste, *aquajim*. Urte osoan zehar aritu dira andoaindar batzuk kirol hau egiten, baina uztaila iritsi denean ikastaro trinkoa egitera animatu dira oraindik ere. Izaskun Jauregi andoaindarra da kiroldegian *aquajim* erakusten duen irakasleetako bat. Bere iritziz, beste kirol mota bat egiteko aukera erakargarria da *aquajim*, eta aspaldi ezer egin ez duenarentzat ere, kirolera hurbiltzeko aukera polita.



Era guztietako ariketak egin daitezke uretan

Aquajim uretan gimnasia egitea da. Urak eragiten duen oposizioaz baliatuz gorputza lantzea. Lurrean gimnasia eginez baino indar handiagoa egin behar izaten da uretan, eta hortik datorkio berezitasuna. Berez, muskulazioa lantzeko propio egiten den kirola ez da, baina lantzen den mailaren arabera, horretarako ere aproposa izan daiteke. Gainera, normalean gimnasia erabiltzen diren zenbait tresnetaz ere balia daiteke uretan.

Aquajim mota eta maila ezberdinak daude, beste kirol askotan beza-

la: ohiko *aquajim*-az gain, muskulazioa lantzeko modu berezia ere badago, eta *erobic*-a ere egin daiteke uretan. Hala ere, aipaturiko azken bi mota hauek bereziki prestatuta dauden zaletuentzat dira, gehienbat.

Onura ugari ekartzen ditu Izaskunen esanetan *aquajim* egiteak: besteak beste, bizkarrezurreko edo lunbagoko gaitzen bat daukanak lasai asko egin dezake kirola, ez baitio inongo gaitzik eragingo. Ez du lesioirik izateko beldur izan behar. Horregatik, edozein adin izanda ere, praktikatzeko kirol egokia da.

Baldintza bakarra igerian jakitea

Aquajim egiteko baldintza bakarra igerian jakitea da. Igerileku txikian egin ohi dira lehenengo ariketa batzuk, eta handian ondoren, jokoak egiten dira, eta igeriketa estilo ezberdinak lantzen dira. "*Aquajim* eginez uraz gozatu egiten da", esan digu Izaskunek. Horregatik, berez, kirola egiteko baldintza ezinbestekoa ez bada ere, uretan gozaten duen jendeak egiten du *aquajim*.

Hasieran behintzat, eta beste asmorik ez izanez gero, ez da kirol gogorregia. Inoiz edota aspaldi kirolik egin ez duen edonorentzat, horregatik izan daiteke kirolera hurbiltzeko modu aproposa. Eta bestalde, beste zerbait egiteaz aspertu samarra dagoenarentzat ere aukera polita da. "Askotan jendea igerian egiteaz aspertu egiten da, atzera eta aurrera luzeak eginez", esan digu Izaskunek, "eta *aquajim* egiten hasten dira".

Denak emakumezkoak

Andoaingo kiroldegian emakumezkoak dira *aquajim* egiten duten guztiak. Ez da berez neskei bakarrik zuzendutako kirola, baina badirudi gizonaekoei gimnasia mota hori egiteak ez dituela erakartzen: "Urte batzuetan aldatuko da mentalitatea", esan digu Izaskunek.

Frantzian hasi ziren lehenengoz *aquajim* egiten. Hernaniko kiroldegian orain dela laupabost urte egiten hasi ziren, eta Andoainen berriz, orain bi urte. Oso harrera ona egin zitezaion hasieratik. Eta gaur egun jendea izena emanda dago iraileko ikastaroak noiz hasiko zain.

Neskak futbolean

Hogeita lau orduko saioan bi taldek hartu dute parte

Badirudi futbola ez dagoela nesKentzat eginda, edota neskak ez daudela futbolerako eginda. Bata edo bestea, ohiturak ere baduela zerikusirik adierazi digute herriko neska futbolzaleek. Duela hilabete entrenamenduetan hasi ziren eta harrez geroztik buru-belarri ari dira mutil talde ezberdinen aurka jokoan. Euren maila oraindik mutilen parekoa ez bada ere, halakoren batean ezustekoa eman diezagukete neskek, ez dabilta ez eta txantxetan.

Futbolak betidanik arazoak sortarazi dizkio jokoan ibili nahi izan duen neskari. Txikitan, mutilekin batera neska asko kirol horretan iaioak badira ere, urteak aurrera egin ahala ez dago batere erraztasunik. Ez dago neska talderik, ez ligarik eta oso gutxi dira futboleant jarraitzen dutenak. Arrazoen artean beharrik sentitzen ez dutela, edo neskek beste gauza batzuk dituztela gogoko entzun izan dugu maiz. Neska askok ez dute hori pentsatzen. Ohiturak hautsi egin behar direla uste dute, eta azkenean, neska taldea elkar-



Gogo handiz osatu dute taldea

tu eta arazo horri aurre egitea erabaki dute, besterik ezean euren kabuz.

5-3 galdu tolosarren aurka

Andoaingo hogeita lau orduko futbol saioa ez da gauza berria. Aurten ere, uztailearen 16an egin ziren partiduetan hamaika taldek hartu zuten parte, guztiak gizonetzkoek osatuak. Hala ere eta hogeita lau ordu horietan egiten den ordubeteko atsedendian, neskez osatutako bi taldek jokatu zuten: Shanti Kirolak taldeko neska tolosarrak Ormazabal Garraioak taldeko neska andoaindarraren aurka. Norgheigoan tolosarrak izan ziren irabazle, 5-3

emaitzarekin. Hala ere, andoaindarrak ez ziren batere gairazi ibili, futboleant hasi berriak direla kontuan hartuz.

Kontuak kontu ea hurrengoetan parte hartzaile zuzenak diren eta atsedendia atsedena hartzeko besterik ez den.

Hori gertatu arte gizonetzkoen gora-beherak hartuko ditugu kontuan.

Hogeita lau orduko lehiaketan finalera iritsi ziren gizonetzko taldeak Extremadura elkartekoak eta Sprint Kirolak izan ziren. 3-1 izan zen emaitza Extremadura elkartearen alde.

Iñaki Arin

MENDIZALE ANDOAINARRA PIRINIOETAN HIL DA

Aspalditik Donostian bizi zen Iñaki Arin Arrieta andoaindarrak hil zen hilaren 10ean Goi-Pirinioetako La Porte d'Arrouge gailurreko horma eskalatzen ari zela. 2.650 metroko altueran zegoela erori zen, haitzen kontra jo, eta bat-batean hil zen. Aste berean ehortzi zituzten bere errautsak Donostian.

Goi-Pirinioetako D'Oo bailaran gertatu zen istripua. Iñaki hormatik 50 metrotara erori eta handik gutxira iritsi zen helikopteroa. Gorpua hilda altxatu zuten sokorristek, eta beharrezko baimenak lortu bitartean Tarbes-eko ospitalean eduki zuten. Antxon Elozegi lagunarekin eta honen semearekin zegoen Arin istripua gertatu zenean.

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK
EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur




KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?




Bostgarren lehiaketa honetan lana pixka bat zailtzen saiatu gara. Zuhur begiraiezue aurpegi xeble honen aurpegiera nabarienei, eta laster osatuko duzue benetako begitartea, gure pertsonaia ezkutua asmatuz.

Billabonako Truchuelo argazki dendak eskaini digu sari polita: edonon eta edozein egoeratan zaudela, musika entzun dezazun **walkman paregabea**. Anima zaitezte eta bidalguzue erantzuna lehenbailehen. Aurki egingo dugu zozketa.



SULADE TXOKOAN



KOLDO SANSINENEA
HERRIKO TABERNA
ADUNA

SOLOMOA SAGARDO ERARA

Osagaiak:

- Kilo *t'erdi txerri solomo freskoa*
- 5 *errege-sagar berde*
- 2 *tipula*
- 2 *porru*
- 3 *baratxuri*
- Kikara *txiki bat olioba olio*
- 1/3 *litro sagardo*

- 1- Plaka baten gainean jarri solomoa erretzeko. Gatza eta piperrautsa bota. Labean sartu 225 gradutan, eta 40 minututan erretzen eduki alde batera eta bestera jarriz.
- 2- Pixka bat erretakoan sagardo pixka bat bota.
- 3- Puskatan moztutako tipulak, baratxuriak eta porruak beratu. Lauki forman moztutako sagarrak gehitu eta baita gainerako sagardoa ere. Solomoak isuritako likidoa ere gehitu.
- 4- Saltsa pasa-purean iragazi.
- 5- Solomo xerra meheak moztu eta saltsaz estali.
- 6- Patata purearekin zerbitza daiteke.



Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30
BILLABONA

"25. URTEMUGA." PREZIO BEREZIAK

- Karrete bat erosiz hondartzarako baloi bat oparitzen dugu
- Karrete bat errebelatuz, argazki album bat edo giltzari bat oparitzen dugu


FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



**GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!**
KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

Zorrak jateko moduko negozioa

Asteasutik, Arrasatera eta Bergarara

Julian Del Rio Gagok, "iruzurtzaile profesionalak", bere biktimek diotenez, hamarka lagunei egin die iruzur. Gehienak langabezian daude gainera, eta nahiko egoera ekonomiko txarrean. "Lanpostuak" delako atalean jartzen ditu Del Riok iragarkiak lanpostu finkoa eskainiz. Interesatuak diru-kopuru jakin bat eman behar dute, enpresarako kapital gisa, gero bertan lanean jarraitzeko.

"Hizketarako trebetasun handia dauka", adierazi dute biktimek, "azkenean, enpresa bideragarria dela eta bertan lanpostu ona izango duela sinestarazten dio edonori". Dirua eman ondoren Julian Del Rio ez da lantegian agertzen. "Bazkideek" ezin dute aurkitu, ezin dute negozioa aurrera atera, eta lanik eta dirurik gabe geratzen dira.

Negozioan parte hartu behar zutenek diotenez, negozioa ez da inoiz martxan jarri tresneria oso zaharra baitzen, eta ezinezkoa izan zen merkatuan beste enpresekin lehiatzea. Askotan saiatu dira Del Riorekin harremanetan jartzen auzia konpondu nahian, baina ez dute ezer lortu. "Gu-

rekin elkartu izan denean hitz potoloz bete izan zaio ahoa eta kobratuko dugula ziurtatzen digu", gaineratu dute.

Algoitex SAL

Algoitex SAL izan da Del Riok burututako azken negozioa. Asmoa jantziak egiteko oihal bakeroak egitea zen. "Oso proposamen interesgarria egin zigun", esan dute, "oihalak egitea eta tindatzea zen helburua. Berak zioenez, eskariak eta guzti zituen". Pertsona hauetako batzuk kredituak eskatu behar izan dituzte kapitalaren dirua emateko. Batzuek beren lanpostua eta guzti utzi zuten negozioan sartzeko. "Algoitex y Tejointex" enpresak Asteasuko industrialdean daude, eta ez bata ez besteak ez dute inoiz funtzionatu.

Orain Del Rio "antzeko enpresa bat eratu nahian dabil Deba Garaian". Dagoeneko kaleratu ditu aurretikakoen antzeko iragarkiak zenbait egunkaritan.

egin "Investigación". Uztailak 2.



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 **TOLOSA**

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 **ANDOAIN**




TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



• **kutxa fundazioa**

• **fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Agenda

ERAKUSKETAK

BILLABONA

Uztailak 21-31: Patxi eta Iñaki Epelderen pintura erakusketa Gurea erakusgelan.

ZIZURKILKO JAIAK

ABUZTUAK 12:

Herri afaria eta Trakets taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 13:

Pultsulariak meza ondoren

18.00etan: Herri kirolak. Ondoren zaharren eta gazteen arteko futbol saioa.

23.00etan: Preso eta errefuxiatuen gaua: Pello Ospitalet eta Pantxo Karrere.

00.30etan: Egan taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 14:

Ume festa.

Mus txapelketa Iriarte etxean

22.00etan: Bertso saioa: Agirre, Egaña, Enbeita, Lizaso, Sarasua eta Sorozabal. Gai jartzailea: Antton Kazabon. Trakets taldearekin dantzaldia ondoren.

ABUZTUAK 15:

Meza ondoren bukalai saioa.

17.00etan: V. auto-krosa. Toka txapelketa.

23.00etan: Urrats taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 16:

Jubilatuen eguna.

12.00etan: Pilotariak eta Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolariak. **Tapia soinujolearen** saioa bazkalostean.

Gau-pasa **Gozategi** anaiekin.

ABUZTUAK 17:

Oilasko biltzea eta **oilasko jokoa.**

ANDOAIN

ETXEERRIETAKO JAIAK

UZTAILAK 28:

Txupinazoaren ondoren haurrentzako jolasak. Gauean dantzaldia Xirimiri taldearekin.

UZTAILAK 29:

11.00etan: Futbol saioa: Boleo Jan-Etxeberrieta. Hamaiketako ondoren.

17.00etan: Mus txapelketa. Poniak eta astoak eta jarraian sardina jana.

23.00etan: Agirren taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 30:

11.00etan: Nesken arteko futbol saioa.

18.00etan: Toka txapelketa Alfaro erretegian.

19.30etan: Herri kirolak.

21.00etan: "Aupa Navarra" Nafarroako jotak.

23.00etan: Dantzaldia Hotza taldearekin.

UZTAILAK 31:

9.00etan: Mendiko txirringa.

12.00etan: Trial Sin.

14.00etan: Jubilatuen bazkaria.

23.00etan: Dantzaldia Xirimiri taldearekin.

GOIBURUKO JAIAK

ABUZTUAK 3:

Meza ondoren Solano trikitilarien saioa.

ABUZTUAK 4:

13.30etan: Oilasko jokoa. Egun osoan zehar trikitixa Joxe Ramon eta Andonirekin.

23.00etan: Dantzaldia Trakets taldearekin.

ABUZTUAK 6:

Meza ondoren Trikitibeltz, **Sorozabal eta Telleria bertsolarien** saioa.

18.00etan: Bertsolarien bigarren saioa eta afal ondoren Trikitibeltz.

SORABILLAKO JAIAK

IRAILAK 1:

23.00etan: Maixa eta Itziarrekin dantzaldia.

IRAILAK 2:

22.30etan: Bertso jaialdia: Iturriaga, Jon Sarasua, Jokin Sorozabal, Jesus Mari Irazu. Gai jartzailea: Aitor Mendiluze. Ondoren eta goizaldera arte dantzaldia Trakets taldearekin.

IRAILAK 3:

17.00etan: Herri kirolak. Oinkari dantza taldearen emanaldia. Gauean dantzaldia Trakets taldearekin.

IRAILAK 8:

Meza nagusiaren ondoren hamaiketako eskainiko zaie auzoko jubilatuei.

17.30etan: Haur jolasak.

23.00etan: Goizaldera arte dantzaldia Trakets taldearekin.

IRAILAK 9:

13.00etan: Oilasko jokoa.

KO MI KIA


1998 (a ojo) M. INDURAINEN SEMEA JOLASEAN



ADUNAO JALAK


A
B
U
Z
T
U
A
K

14
15
16
eta
20



ADUNAKO UDALAK

jai zorientsuak opa dizkizue



LIBURUA


Gerra Zibila

andoaindarren begietatik.

DAGOENENKO SALGAI

*Andoaingo liburudendetan
eros ezazu:*

**DELGADO, ERNAITZA,
IKAS - JOLAS, INAZIO,
MINICOST, edo STOP.**



2.000 pta.

ERNE BAZKIDEAK: BAZKUNEAN BERTAN EROS DEZAKEZUE

ZIZURKILGO UDALAK



*jai zoriontsuak
opa dizkizue
herritar nahiz
kanpotik zatozen
guztiei*


ONDO PASAJAIK GOIAN ETA ELBARRENAN



Plater
hausketarako
instalakuntzekin

ERRETEGIA

IZURTZU



Andazarrate Gaina - Tel. (943) 58 08 66 - ASTEASU (Gipuzkoa)